

Boulose espedizioa

Eva Linazasoro Izagirre

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
1993



Zumaiaiko Udala

*emskar
txanpan*



Boulose espedizioa

Eva Linazasoro Izagirre

Julene Azpeitia 6. Ipuin lehiaketa

1993

2. saria

Zumaian Julene Azpeitia Ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Eva Linazasoro Izagirre (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Bonaparte handiak larruzko goantez apainduriko eskua jaso eta adio egin zien azkenekoz espedizioa osatzen zuten gizonei, eta inork aditu ez bazion ere, "zuengandik gauza handiak espero ditugu" bota zuen hain gutxitan erakusten zuen emozioz. Esan bezala, ordea, ez zituen mandatari zoliaren hitz neurtu haiek inortxok ere aditu, ezen edonor ikaratzeko modukoak baitziren Le Havreko kaian bizi ziren istilu eta festak, malko eta despedidak.

Eta beraz, nahiz eta Napoleon Bonaparte berbera, segizio eta guzti, Marshall ontzi-kapitainak gidatzen zuen espedizioa agurtzera bertaratu, herriak ez zituen begiak beregan jarriak, baizik hain eder eta handios itsaso urdin zabalean pausatzen ziren bi ontzietan, Boulose korbeta eta Uranie gabarra dotoreetan, hain zuzen ere.

Bonapartek, bi ontziak urruntze aldera eta begiak hodeiertzean galduak, "goazen" esan zuen ahots zizkolatsuz, eta martxan jarri ziren hain haidor zaintzen zuten ehun soldaduak, baina orduan ere ez zituen herriaren begi eta bibak bere gain sentituko, eta oinaze puntu gogaikarri bat piztu zitzaion errailetan.

Le Havreko kaian hego-haizeak zoko guztiak poliki igurzten zituen eta eguraldia, urriari zegokion legez, aproposa zen zernahitarako, eta batik bat itsasoratzeko. Bi ontziak, Marshall kapitainaren ardurapean eta Baily fragata kapitainaren laguntzaz, poliki urrundu ziren kaitik eta kostatik, eta orduantxe hasiko ziren Marshall kapitain izukaitzaren estrain manu eta garrasiak.

Honek Frantziar gobernuaren konfiantza osoa zuen, eta Napoleonen begirunerik handiena, kapitainaren ekintzak ("hazainak" esaten zuen Kontsul Nagusiak) paregabeak baitziren, nabigatzaile guztien inbidi.

Ez zuten, hortaz, frantziar mandatariak espedizio garrantzitsu haren gidaritzatza hautatze tenorean ezbai ñimiñoenik ere izan, bozketak argi adierazten zuen bezala: hamar boto alde, bakarra ere ez kontra.

Kontsul Nagusiak bere aurrera deitu zuenean, Marshall kapitaina beti bezain burgoi aurkeztu zen bilerara, eta haritzeko atetzarra gurutzatu aurretik esango zitzaiona asmatua zuen erabat.

—Zure zerbitzu-orria sakon aztertu dugu —hasi zen esaten Kontsul Nagusia ekuru— eta zu zara, Marshall kapitaina, dudarik gabe, espedizio honetarako gizonik aproposena. Baina aurrera baino lehen jakina, prest al zauden jakin nahi genuke.

—Noski, jauna. Ohore handiz.

—Ongi, orduan. Nahi duzun guztia eskatzeko ahalmena izango duzu: dirua, tripulazioa, materiala, dena.

—Eta zein izango da, bada, espedizioaren helburua?

Kontsul Nagusiak irribarre ttiki bat saiatu zuen, eta bere jesarlekutik mugitu gabe eskua luzatu eta tirrin bat sakatu zuen parsimoniaz, esanez ondoren:

—Dirudienez ez zaude denbora alferrik galtzeko prest, ala?

—Halaxe da, jauna. Itsasoratzeko irrikatzen nago. Lehorrak hezurak muskiltzen dizkit.

Idazkaria gelara sartu eta Kontsul Nagusiaren aginduak jaso ahala irten zen, handik minutu eskasera atzera itzultzeko. Zenbait plano eta mapa mahai borobil baten gainean destolestu, ireki, zimurdurak kentzeko ahaleginak egin eta idazkariak bi gizonak bakarrik utzi zituen.

—Hitz gutxitan esateko, gobernuaren helburua eta zure eginbeharra haxe izango da: Holanda Berriko kostak guztia, hau da, hego-mendebaldea, mendebaldea, ipar-mendebaldea eta iparraldea ahal bezain ongi aztertu eta ezagutzea, inguru horiek oso garrantzizkoak direnez Frantziaren zabalkuntzarako, eta guztiz ezezagunak ditugu oraindik.

—Zenbat denboran, jauna?

—Behar adinean. Ez dugu presarik.

Azken urtebete nekoso eta luzea prestakuntza sakon eta arduratsuetan joan zitzaion Marshall kapitainari, bide aproposenak hautatu, tripulazioa pertsonalki prestatu, materialik egokiena atondu eta bi ontzien eraiketa bertatik zuzendu eta gainbegiratu. Neurri berezi haiek eta guzti, gauzak ez ziren kapitainak nahi bezala aterata oso-osorik, tripulazioaren osaketari zegokionean ez baitzegoen ados mandatariekin, eta halaxe azaldu zion bere kexua Kontsul Nagusiari. Alferrik, ordea.

—Marshall kapitaina, Hamelin jaunak ez du agindu zaiona baizik betetzen. Beharbada zuri zientzialari gehiegi iruditu bide zaizkizu baina denak dira beharrezkoak. Badakigu ez direla marinelik onenak, zure lana zaildu egingo dutela zenbaitetan; kontutan hartu beharko zenuke, ordea, beraien lana zurea bezain inportantea dela Frantziarentzat.

—Jauna, nik ez dut beraien lana gutxiesten, baina uste dut zientzia bakoitzetik espezialista bana untziratzea nahikoa dela. Zertarako bi astronomi, bi geografo, bi botaniko, bi zoologo, bi mineralogista? Zertarako bi marrazkilari eta bi lorezain?

—Bidaia luzea izango delako, eta edozer gauza gerta daitekeelako. Ez ahaztu, mesedez, munduko zientzialari ekiporik onena daramazula zure ardurapean, eta guztien emaitzak dira guretzat beharrezkoak. Zureak eta besteenak.

—Ongi, jauna. Baina jendetza honek ez du arazoa besterik sortuko, eta orduan neurri gogorak hartu beharko ditut.

Eta mehatxu-edo harekin gelatik irten zen zalu. Kontsul nagusia, kapitainaren aiurri zailaren jakitun, ez zen deus asalatu eta irribarre egin zuen ate danbateko ozena entzutean.

Azkenik, Bonaparte beraren nahiak bultzaturik, zientzialari guzti-guztiak untziratatu ziren.

Adierazi moduan, 1800. urrian irten ziren Le Havreko portutik bi ontziak Marshall kapitainaren gidaritzapean; Boulose korbeta 350 tonatako ontzia zen, hogeita hamar kanoi handiz hornitua, eta Uranie gabarra, beste hainbeste tonatako ontzi sendo eta zabala, korbeta arinagoaren laguntzaile gisa. Guztira,

hirurogeita hamar gizon itsasoratu ziren, Frantziar gobernuak ponperia handiz Boulose espedizioa deitu zuenaren baitan.

Xehetasun guztiak ardua paregabez izan ziren prestatuak; hala, marinelen osasuna ziurtatua gelditzen zen jaki zein edari komenigarrienen hautaketarekin; bi ontzietan destilagailu ugari ipini zen ur eskasia izango balitz; osasun aginduak zorrotzak ziren oso eta garbitasun neurriak ezin hobekak.

Espedizioak Europako gobernu guztien pasaporteak zeramatzan, badaezpada, eta Afrika eta Asiako komertzio itzaltsuetan kreditu mugagabeak zituzten, jaki edota erosgaiak erraztasun osoz lortu ahal izateko.

Baldintza paregabe guzti haiekin irten ziren, bada, urri haizetsu samar hartan lurralde haien bila. Eta ia estreinako egunean bertan hasi ziren arazoak kapitaina eta zenbait marinelen artean, iritzi desberdin eta desadostasunak medio.

Boulose espedizioak Tenerifeko Santa Cruzen egin zuen bere lehen eskala, bi hilabeteko nabigatze patxarosoaren ondoren. Han, aurrez pentsatu bezala, bi aste igaro zituzten, kanariar gobernarien abegi eta miresmenaren erdian, festarik festa, irlako klimaz eta hondartza zoragarriez gozatuz. Halaxe dio Anderson margolariak bidaiari zehar idatzi zuen diariotxoan:

"Harrera izugarria izan da. Ontzietatik jaitsi bezain prestu mota guztietako opariak egin dizkigute, eta inauterietan dantzatzen duten doinu alai horietako bat dantzatu dute gure ohorez. Hemen beti festa dela dirudi. Eta badaramatzagu Tenerifen, dantza eta jai-giroan, ia hamar egun!"

Tenerife polita egin bazitzairen ordea, ez zitzairen hain ederra irudituko handik bertan, irlaren ingurumarietan aurkituko zuten paisaia desolatua, likitsa, eroria: oro zen idor, harkaitz hauskarez irudikatua, non eguzkiak errea zegoena errukirik gabe kiskaltzen baitzuen, lurra eta airea sufre bihurtuz. Eta hotzikarak sentitu zituzten, eta gupida neurtezina, infernu hartan jendea bizi zela jakitearekin bat, ezen sinesgaitza egiten bazitzairen ere, han jendea bizi baitzen, prostitutak, eta haraxeraino bertaratzen omen ziren kaietako marinelen hordi gosetiak, beren orgia basatietara.

Ahal bezain agudo urrundu ziren lur arraildu haietatik. Bost hilabete lasaien ondoren, Mauriciora iritsi ziren; hara heltzeko Marshall kapitainak ez zuen itsaso zabaletik barrena hartu, Afrikako kostak ertzetik baizik. Han, ordea, itsas bare ekuadortarrak harrapatu zituen bi ontziak eta postura hartan, mugitzeke apenas, bi aste luze joan zitzaizkien. Jendea, Andersonen adierazi bezala, ernegatzen hasia zen:

"Urak olio kolorea du, eta azken bost egunotan ez dirudi mugitu garenik ere. Jakiak ahitzen ari dira eta ez dugu inondik ere lur puska bat begiztatzen. Eta egoera honek ez du aldatzeko tankerarik erakusten."

Azkenean, hamabost egunen buruan ur-basamortu likits hartatik ateratzea lortu zuten, eta Mauriciora iritsi ziren. Han, zain izan behar zuten hirugarren ontzi bat, zeinaren kargu baitzegoen espedizioa bi ontziak jakiz hornitzea. Mauricio kaian, baina, ez zen beste ontzirik azaldu. Marshall kapitainak orduan kontuak eskatu zizkion hango gobernadoreari.

—Sentitzen dut, kapitain, baina ez dakigu ezer Gould-en berri. Azken berriak orain sei aste jaso genituen. Bazetorren. Orduz geroztik ez dakigu besterik.

—Ez al duzue inor bidali?

—Ez, jauna. Gure ontziak oso ahulak dira.

Ezin arriska gaitezke.

—Baina guk jakiak behar ditugu! Arraioa!

Orduan, gobernadoreak, uzkur, bere burua errudun ikusiko bailuen, esan zion kapitainari Gould ontzia ez zela azaltzen ikusiz ahalegin guztiak egin zituztela jakiak lortzen eta eraman zituztela haien bederen. Bildutakoa erakutsi ziotenean, ordea, kapitaina biziro larritu zen, hura eskasa zenez guztiz, eta larriune latz hartan Mauricioko hiritarren eskuzabaltasuna eskertu ordez, irainak baizik ez zituen jaurti.

Untziratzean sumatzen zuena gertatu zen, bikoiztuta ordea: berrogei pertsonak-edo, jaki erreserba eskasaren berri jakitean eta egoerak hartzen zuen itxura gaiztoa kontutan harturik, espedizioa uztea deliberatu zuen, alferrikakoak izan zirelarik adierazpen, animo eta mehatxuak. Haietatik gainera, tenienteak ziren bi eta alferreza bat. Baina kapitainak ez zion gertakizun hari garrantzirik batere eman. Hobe hala: zenbat eta aho gutxiago, orduan eta gehiago iraungo zuen jakiak.

Martxan jartzearekin bat, Marshall kapitainak beste erabaki garrantz bat iragarriko zion triupulazioari: une hartatik aurrera, eta gauzak hobetu ez bitartean, ogi razioa erdira mugatzen zen eta ardoa ere beste hainbeste. Hura gutxi balitz, haragi freskoaren eskasia alarmagarria zenez, jendeak gailetak eta jaki gazituak jaten hasi behar izan zuen derrigor, bat-batean eskorbutuaren mamua azalduz.

Inork ez zituen kapitainaren aginduak aintzakotzat hartu, gogorrek zirelako batetik, eta bestetik atzipetuak sentitzen zirelako. Baina kapitainaren manuak tinkoak ziren; inork ez zuen bere aurrean txintik ere esango.

Tripulazioaren haserreak gailur egin zuen, egun hartan bertan, diplomazia zipitzik gabe, kapitainak Van Diemen-go Lurraldeetatik barrena joan ordez, bidea moztu eta itzulingururik gabe Holanda Berriko ipar zein mendebaldeko lur arriskutsu idorretara zuzenean joko zutela adierazi zuenean.

—Hori astakeria hutsa da! —kexatu zen Forster astronomoa.

—Hori ez da trazatu genuen bidea!

—marinelek aho batez.

—Bada, gauzak horrela daude. Afrikako kostan denbora asko galdu genuen eta denbora hori berreskuratu egin behar dugu nahita nahiez. Eta jarraitu nahi ez duenak hor dauzka txalupak!

Autoritarismo harroputz haren aurrean, jenio beltz hark iziturik, tripulazioa mutu gelditu zen osterara ere, beren eginbehar nekosoetara alditxartuak makurtuz.

Abuztua bitartean bi ontziek iparralderantz nabigatu zuten, jazoera berezirik gabe, kontinentea setiatuz eta ezezagunak zituzten puntuak aztertuz eta seinalatuz. Endrach-eko Lurraldeetan zientifikoek bere paradisu amestuekin egin zuten topo, hain baitzen zoragarria, aberatsa, han mira zitekeen itsas fauna. Baleak saldoka aurkitu zituzten eta zenbait egunez haien

bizimodu berezia aztertzeko parada izan zuten, bakarra ehizatu ez bazuten ere, eta ez gogo faltaz.

Beste batean, Marrazoen Badian itsasuge burugarrien azterketa lanetan ari zirela, olatu izugarri batek bat-batean Laville marinela kareletik harkaitzetara jaurti zuen. Ordubeteko lan gogor eta angustiagarria behar izan zuten marinela gizagaixoa harri grisaxka haien artetik onik libratu ahal izateko.

Marrazoen Badia utzi eta aurrerantz egin zuten. Nabigatze nekagarri hartan bi ontziek leku ezezagunak igaro zituzten, artean inon seinatu gabeak, eta hauei, golko, irla, badia zen kabo anonimoei izen berriak ezarri zizkieten. Abuztuan, Australiako kostan zetzan Timor-era iristean, espedizioak aingura bota zuen Cupang-go Badian, Marshall kapitainaren gogoz kontra izanik ere. Baina egoera dagoeneko eustezina zen. Honatx Andersonen hitz kezkatuak:

"Tripulazio guztia leher eginda dago. Ez daukagu jakirik eta ur eskasia areagotu egiten da egunez egun. Gainera, hori guztia medio, jende ugari dago eskorbutuz jota, eta Bernardin medikuaren ahalegin eskergak ez dira nahiko. Ez bagara laster lurreratzen, gureak egin du."

Marshall kapitainak hitz gutxi eta azkarretan eman zion egoeraren berri Cupang-go gobernadoreari. Hark, minutu bakarra ere galdu gabe, hiru etxe jarri zituen espedizioaren zerbitzura eta eskorbutuz jotako marinela urduri guztiz ospitaleratu zituzten. Harrera ezin hobea izan zen. Espedizioa kideek, hain denbora luzeko gose eta desdixak ahaztera, lar disfrutatu zuten hango jaki, konpainia eta festekin. Malariar zindoez zeukaten guztia eskaini zuten: etxe, janari, neskato birjinen gorputzak.

Hilabete eskas igaro zuten Cupang-en. Behin eskorbutuz jotako jendea sendatu ondoren, martxan jarri zen atzera espedizioa, sekula ez bezalako penaz, nostalgiaz eta, zergatik ez, nagikeriaz.

Egoera, itxuraz behintzat, nahikoa hobetu bazen ere, ez zegoen ospakizun handitarako. Eskorbutua sendatu bai baina beste gaitz batek joko baitzuen segidan tripulazioa: disenteriak. Bernardin medikuaren zainketak osteria ere miragarriak izan ziren baina berak bakarrik ezin zituen inolaz ere ohean zeutzan hogeitaz gizonak zaindu, eta bestalde botikak urriak ziren hainbeste errentzat. Hala, ahalegin izugarri haiek eta guzti, azaletik jotakoak bakarrik salbatuko ziren, gainerakoak, dozena erdi inguru, erremediorik gabe hilko zirelarik, agonia latzetan murgilduak.

Navarre botanikoak ere itsasoan bukatuko zituen egunak. Honek, Bernardin medikuaren esanei entzungor eginez, lore, landare eta hazi ezezagunak biltzen jarraitu zuen, bilduma garrantzitsu bat lortu arte. Bilduma hura, ordea, Marshall kapitainaren aginduz, ur sakonetan galduko zen, Navarre zoro hura haietako landareren batek isurtzen zuen pozoiz hil baitzen dudarik gabe, guztiz modu latz eta azkarrean.

1802. urteko urtarrilean Entrecasteaux-ko Kanalera iritsi ziren, Van Diemen-go Lurrean. Ordurako, hainbat eritasunen kariak, ia egunero gertatzen zen heriotzen bat, alferrikakoak izanik maiz medikuaren ahaleginak. Ur eskasia, berriz, erabatekoa zen; hainbestearinokoa non jendea egarriz hiltzen baitzen.

Eriak eta guzti, Marshall kapitainak Tasmania aztertzeko agindua eman zuen. Jendea ez zen kexatu. Bi hilabete igaro zituzten han, askorentzat berbizitako azkenak. Lur eta baso tropikal haiek zoragarriak iruditu zitzaizkien:

hango isiltasun misteriotsua, hezetasun sarkorra, zuhaitz eskerga haien itzal baketsua...

Naturalistek sekula ikusi gabeko fenomenoak ikusi zituzten; gainerakoek, marinel eriek, bat-batean hiltzeko lasaitasuna aurkitu bailuten, paradisutzat hartu zuten lur hura, tasmaniarren bihotzak bereganatuz.

Martxoaren seian, gelditzen zitzaizkion gizon eskasekin, Marshall kapitainak Sidneyrantz jo zuen. Eskorbutuak bere lana egiten jarraitu zuen baina Sidneyra heltzean jakiak eta botikak lortu zituzten eta hari esker hainbat eri libratuko zen heriotza hurbiletik. Sidneyn zenbait hilabete igaro zituzten. Herri hura orduantxe fundatua zen, hamalau urte lehenago, eta King gobernadorearen laguntzaz kolonia haren aurrerakuntza, langintza eta bizimoduak aztertzeko aukera izan zuten. Miraturik gelditu ziren, batik bat portu-instalazio eta zegoen komertzio mugimenduarekin. Naturalistek, bere aldetik, bilduma berri paregabeak lortu zituzten, Botanikak Badian bilduriko espezieei esker.

Baina sei hilabeteko atsedenaldirik luzeak haren ondoren, tripulazioko zenbait gizon ez zegoen oraindik behar bezala sendatua, eta Marshall kapitainak etxeratzeko agindua luzatu zion Baily kapitainari, eri, bilduriko animalia, lore bilduma, tresna etnografiko eta abarrak hartuta. Hantxe banatuko ziren, beraz, Boulose eta Uranieren bideak. Azken hau, Boulosek Australiako kostetarantz jotzen zuen bitartean, arazorik gabe iritsi zen Le Havreko portura 1803. urteko ekainean.

Marshall kapitainaren agindupean hamar gizon besterik ez ziren gelditu. King irlan, Boulose korbetak hamabi eguneko geldiunea egin zuen, molusku eta zoofito desberdin ugari biltzearen, eta bide-nabar itsas elefanteen bizimodu berezi eta zama bertatik aztertzearen.

Egun ahaztezin haien ondoren Kangumen irlara iritsi ziren, bia eta lehen aldiz itzuli osoa eman ere. Han, zenbait egun prospekziotan jardun zuten, eta Napoleonen Lurraldean zeritza zenbait kanguru tiki eta hiru emu beltz (ostrukak) harrapatu zituzten, eta bizirik untziratatu.

Holanda Berriko hegoalde eta hego-mendebaldea aztertzearekin amaitu eta gero, Marshall kapitainak gutun bat igorri zion Frantziako lehen ministroari:

"Nere eginkizuna, jauna, hementxe amaitzen da. Holanda Berriko bi golkoak sakonki aztertu ditugu, bai eta Kanguruen Irlako hegoa eta mendebaldea ere. Baina ezin gaitzeko aurrerago joan. Beste bi kostak aztertzeko hamar urte beharko genituzke eta hemen ez dago egoera txantxetarako. Hamar gizon soilik gelditzen gara eta oso da luzea itzulerako bidea."

Gutunean adierazi moduan Boulose korbetak etxerako norabidea hartu zuen. Lehen nabigaturiko itsas eta leku beretatik jo zuten bueltakoan ere, baina hagitx biziago orain; eta hala, lehen geldiune derrigortua, Mauricion bete zuten, tripulazio guztia gaixo eta indarge aurkitzen baitzen, Marshall kapitaina barne.

Hantxe jakin zuten Boulosekoek Uranie gabarraren bidaia arrakastatsuen berri. 1803. go irailean, Mauricion bost gizonen gorpuak bertan utzirik, Boulose espedizioko azken bost tripulatuak itsasoratu ziren. Osasunez kaskar baina animoz bizi, azken etapak egiteko prestatu ziren.

Itsasoaren bateaz eta haizearen indar irmoaz baliatuz, bost hilabete egin aurretik Tenerifen zeuden, eta handik gora, Portugaleko kostara guztia zeharkatuz, Kantauri itsasora heldu ziren hogeita hamar egun beranduago.

Ferrolen egingo zuten azken geldiera. Han, ezustean, frantziar enbaxadorea azaldu zitzaion; honek, Frantziaren izenean zoriondu eta gero, Bonaparte handiaren nahia adierazi zien: Bonaparte Frantziako hegoaldean zenbait hilabetez bisitari ibiliko zenez, atsegin handiz hartuko zukeela Boulose espedizioa Miarritzeko kaian, eta joan zitezela hara, enperadoreak pertsonalki agurtu nahi zituela-eta gizon ausart haiek.

Marshall kapitainari noski, primerakoa iruditu zitzaion berri hura, batetik Miarritze askoz bertago zegoelako Le Havre baino eta bestetik Bonaparte bera zain zeukala jakiteak urguilua puzten ziolako. Beraz, egonezinak bultzaturik eta hango itsasgizonen kontseilu zein oharpenei jaramonik egiteke, Boulose korbeta itsasoratu egin zen, sotoa behar adina erreserbaz beterik.

Baina, ferroldar itsasgizon adituek esan bezala, eguraldia belztu egin zen, ilundu, eta itsasoa haserre bizian jarri zen bat-batean. Euri finak uherrari utzi zion leku, eta honek, aldi berean, enbatari. Egunak ez ziren argitzen eta haize basati hark sei-zortzi metroko olatuak sortarazi zituen. Norabidea ahal zuen eran kontrolatuz eta hilabete beldurgarri baten ondoren, Getari parean zeudela ohartu zen Marshall kapitaina, begietatik hain bertan aurkeztzen zitzaion harkaitzar hura Getariko Arratoia baitzen, dudarik gabe.

Getariko itsasgizonak, nortzuk hilabete pasea baitzeramaten kaitik mugitu gabe eguraldi traketsaren zioz, halakoetan egiten duten bezala, eliza atarian eta harresiaren pasabide estalietan gorderik zeuden, noiz baretuko zain, ardaila monotonoan. Haietako batek, derrepentean, besoa luzatu eta eskua mugituz, sekulako garrasia bota zuen:

—Ontzi bat San Antoneeen! Ontzi bat San Antoneeen!

Eta lanbro lodia izan arren, hantxe ikusi zuten Boulose korbeta, popa jada ur beltzean murgildua, eta korri egin zuten hogeitabat gizonak txalupetara, han leudekeen marinelak salbatzera; puntu hartara iristerako, ordea, ez zegoen han ontzirik. Arrastoak baziren bai ugari, eta haien artean, nahikoa arriskatu eta gero, Anderson margolaria aurkitu zuten, bizirik artean; eta honen ahotsez jakin zuten beste lau gizon ere bazirela, han behar zutela nonbait.

Ordu-laurdenez ibili ziren inguruak ahal moduan arakutzen. Ez zegoen gehiago arriskatzerik. Azkenik, beraz, arraunak itsasoratu eta kaira heltzea lortu zuten. Anderson margolariak ez zuen asko iraungo. Zumaia, Zarautz eta Getariako medikuen ahaleginak alferrikakoak izan ziren. 1804. apirilaren 24an, birrikak urez beterik, nekearen ahulez eta disenteria arrasto senda gabeek margolariaren bizitzarekin amaitu zuten. Andersonek, hiruzpalau marrazki dotorez gain, espedizio luzean zehar idatzitako egunerokoa utzi zituen, egun, hil aurretikako bere nahia halakoxea izaki, Getariko Artxibategietan dagoena, edonoren kuriositaterako, Elkanoren bidaiaren beste zenbait paperekin batera.

Beste lau gizonen berri ez zen, ordea, sekula izango; Boulose korbetak berriz, ia bi mendi igaro direnean, hor behar du izan oraindik, arratoi erraldoiaren babesean.